

Kalea bete antzezian

Datozen egunotan hainbat kale antzezpen izango dira gurean. Hilaren 6an, ostirala, Hortzmuga taldeak "Rekolore" obra antzetzuko du 18.00etan, Altzako Santa Barbaran. Egun berean, Profesor Karolik "El elixir de la vida" emango du Antiguako Julio Caro Barojan, 18.30ean. Hilaren 7an, larunbata, Goringok "Trufaldinoren trufak" antzetzuko du Intxaurrondoko Justo Elizarran plazan, 18.00etan. Azkenik, hilaren 7an ere, Kukubiltxok "Ekidazu. Lehoiek ez dakite bibolina jotzen" emango du.



datozenak

Euskadiko Orkestra Sinfonikoa motorrak berotzen ari da jada 2002-2003 denboraldiaren emanaldiari begira. Donostian eman beharreko lehen kontzertua urriaren 8an izango da. Lehen emanaldi horretan orkestrak L. Van Beethoven-en eta A. Dvoraken obrak joko ditu, Gilbert Vargaren zuzendaritzapean. Nabarmentzekoa da, halaber, Orkestra Sinfonikoak, denboraldi honetan, Xavier Montsalvate, Jesus Aranbarri eta Hector Berlioz musikariak omenduko dituela.

Zartzueta emanaldiak

Datozen egunotan Sasibil Elkarte Lirikoak bi zartzueta antzetzuko ditu Antzoki Zaharrean. Hilaren 12an eta 13an Jacinto Guerteroren "Los gavilanes" eskainiko da, eta hilaren 14an eta 15ean, Pablo Sorozabalen "La tabernera del

puerto" antzetzuko dute. Helena Gallardo, Pilar Moro, Ainhoa Aierbe, Mertxe Salaberri, Rafael Lledo, Luis Cansio, Jon Plazaola, Carmelo Barañano eta Josu Lopez Sasibil abesbatza lirikoarekin eta Donostiako Orkestra Sinfonikoarekin ariko dira oholtzan. Emanaldiak 20.00etan hasiko dira.



musika, dantza eta magia kursaalean



Kursaal Fundazioak prest du dagoeneko datozen hilabeteotako kultur eskaintza. Musika, dantza eta magia emanaldiak izango dira aukeran. Jarraian emanaldion zerrenda duzue:

Urriak 5	Magia emanaldia
Urriak 10	Jaime Aragall
Urriak 15	Meisho Tosha
Azaroak 2	Ukraniako Balet Nazionala
Azaroak 8	Mahler Chamber Orchestra
Azaroak 15	Orchestra of the Age of Enlightenment
Azaroak 23	Doudou N'Diaye Rose eta Dakarreko Perkusio Orkestra
Azaroak 29	Benito Lertxundi
Abenduak 16	Moskuko Abesbatza
Abenduak 18	Espainiako Dantza Konpainia
Urtarrila 23	Collegium Vocale Gante